



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, PROZEDURA IREKI BIDEZ OBRAK KONTRATATZEKO. PRESAZKO IZAPIDETZEA.

“EPELEKO ZABORTEGIAN I FASEKO ISURKETA-GELAXKAREN ITXIERA PARTZIALA ETA II FASEAREN SORRERAREN PROIEKTUA” GAUZATZEKO LANAK

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza Agiri honen arabera egiten den kontratuak helburu hau izango du: “Epeleko zabortegian I faseko isurketa-gelaxkaren itxiera partziala eta II fasearen sorreraren proiektua” gauzatze lanak egitea; proiektua HIRIGINTZA, S.A. enpresak idatzia da, kontratu-izaera izango duen espedientean agertzen den dokumentazio teknikoaren arabera.

2. GAUZATZEKO EPEA

Kontratazio honen xede diren lanak egiteko **epe osoa SEI HILABETEKOA** izango da, zuinketa egiaztatze akta izenpetu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.

Halaber, ondorengo **epe partziala** ezarri da:

- Isurketa gelaren II fasea egiteko epe partziala: HILABETE BAT zuinketa egiaztatze akta izenpetu eta biharamunetik aurrera.

Epe horiek igarota, kontratista berandutzan sartuko da, eta ez dio Administrazioak alde zuzenetik aurretik hertsatuki agindu beharrik izango.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa, BEZ sartu gabe, MILIOI BAT BOSTEHUN ETA HOGEITA BI MILA ZORTZIEHUN ETA SEI EURO ETA HOGEITA HEMEZORTZI ZENTIMOKOA (1.522.806,38 €) izango da, eskaintzaileek behar bezala hobetu ahal izango dutena.

Ez zaie inolako beherapenik egingo Segurtasun eta Osasun eta Kalitate Kontrolerako partida edo kontu-sailei.

Prezioan sartutzat joko dira kontratua gauzatzearen ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak.

Kontratuaren prezioan aleko prezioen zerrenda bat sartuko da, eta horiek aginduko dute kontratua bete bitartean. Prezio horiek ez badira aurkezten, ulertuko da Administrazioaren aurrekontuko berberak eskaintzen dituela eskaintzaileak, bere proposamen ekonomikoan dagoen beherapen-ehuneko berbera aplikatuta.

4. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko finantzaketa bat aurreikusita dago 2015. urteko aurrekontuaren 3600.623.162.30.99 partidaren kontu. Halaber, bada lan hau finantzatzeko funts berezi bat eta dagokion kreditu-transferentziako espedientearen bidez jarriko dira beharrezko kredituak.

5. ORDAINTZEKO ERA

Gauzaturiko lanen ordainketa hileroko ziurtapenen bidez egingo da, obren zuzendari fakultatiboak eginak.

Ziurtapena onartu ondoren, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 216. artikuluan lege ezarritako epeen barruan egingo da ordainketa.

6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratuaren ezaugarriak kontuan izanda, ez zaio inolako prezio-berrikuspenik egingo.

7. BERMEAK

Kontratuaren esleipenduna beharturik dago behin betiko bermea aurkeztera, esleipen-zenbatekoaren %5ekoa, BEZ sartu gabe, bere gain hartutako eginbeharrak beteko dituela bermatu eta ziurtatzeko.

Berme hori aurkezteko epea hamar lanegunekoa izango da, errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera, eta Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 96. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan egin ahal izango da.

Bermea itzultzea Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 102. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da, berme-epea bukatu eta esleipendunak bere kontratuzko betebeharrak bete ondoren.

II.- KONTRATUA GAUZATZEA

8. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratu hau gauzatzeko ondorengo **baldintza berezia** eskatuko da:

- Nahitaez azpikontratatu beharko da geosintetikoaren instalazio-lana aurkezturiko proposamenean jarritako enpresarekin.

Baldintza hau funtsezko kontratu-betebeharra da, eta, beraz, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 118.2 artikuluan ezarritakoaren babesean, hori ez betetzea kontratua suntsitzeko kausatzat hartu ahal izango da, 223.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

Lan-kontratuaren betetzea ziurketa egiaztatzeko akta izenpetzearekin hasiko da, eta hori kontratua formalizatzen denetik aurrera 15 laneguneko epean egin beharko da.

Kontratu hau betetzea kontratistaren arrisku eta benturara egingo da, eta honek ez du kalte-ordaina eskatzeko eskubiderik izango lanetan gertaturiko galtze, matxuratze edo kalteengatik, salbu Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 231. artikuluan ezarritako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Dena den, lanak Baldintza Agiri honetan erabakitako klausuletara, berari erantsitako espezifikazio teknikoetara, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean eta Lege horren Erregelamendu Orokorrean —urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onartuan— ezarritakora zorrotz makurtuta egingo dira. Bereziki, kontratua betetzea Mankomunitatearen zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrol pean egingo da, ahalmen hauek ahoz nahiz idatziz erabiliko dituelarik.

Kontratistari edo bere mendeko pertsoneri egozteko moduko egite edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskarazten denean, Administrazioak beharrezkoak iruditzen zaizkion neurriak hartzeko eska diezaioke, martxa ona berreskuratzea lortzeko.

Lanak Epeleko Zabortegeiaren jarduera propioaren ohiko funtzionamenduari eragin gabe egin behar dira. Zabortegeiaren funtzionamenduak lehentasuna izango du beti obrak egitearen aurretik. Baldintza hori kontuan izanda planifikatuko ditu Kontratistak bere lanak eta lan horietarako beharrezko baliabideak; beraz, ez da atzerapenik onartuko, ezta aurrekontua igotzerik ere, obrak zabortegeiaren jarduera propioarekin koordinatu behar diren ondorioz.

9. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK

Lan arloan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden lege-xedapen guztiak bete behar ditu kontratistak, kontratu honen xede diren lanetan erabiliko dituen langileei buruz. Kontratistak ez baditu betebeharrak horiek betetzen, Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango.

10. BALIABIDE LAGUNTZAILEAK ETA SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Esleipenduna beharturik dago kontratuan hitzartutako epeetan obrak ondo egiteko beharrezko diren makinak eta bitarteko laguntzaileak jartzera.

Lan, bitarteko laguntzaile eta material guztiak, baita laneko segurtasun eta osasun-elementu edo unitate guztiak ere, edozein obra-unitate egoki egin eta burutzeko beharrezko direnak, bere prezioan sartuzat joko dira, nahiz eta guztiak ez agertu zehaztuta prezioen xehakatzeko edo deskribapenean.

Obrak hasi aurretik, kontratista esleipendunak Segurtasun eta Osasun Plana egingo du, proiektuan ezarritako Segurtasun eta Osasun Azterketan oinarrituta; Azterketan ezarritako aurreikuspenak analizatu, aztertu, garatu eta osatuko dira Planean, eta obra-jarduketara zehaztutara egokituko da, eta bere gauzatze-sistema propioaren funtzioan betiere.

Bestalde, ez da inolako partida estrarik onartuko sarbideak prestatzeko eta obra-materialaren garraio eta zabalaketarako, obraren aurrekontu orokorrean sartuta ez badago, obra-unitateen prezio unitarioetan sartuta baleude bezala hartzen dira eta.

Halaber, enpresa kontratistak bere kontura jarri behar ditu obra-sarbidea adierazteko behar diren seinaleak, lan-guneetan dagoen zirkulazio-arauketa, eta arrisku-gune posibleak, bai lan-gune horietan eta bai inguruetan; obraren izaerak eskatzen dituen segurtasun-neurri guztiak hartu beharko ditu pertsona eta ondasunentzat.

11.- DATU PERTSONALAK

Kontratua betetzeko tratamendu automatizatua duten datu pertsonalak erabili behar baditu enpresa esleipendunak, hori abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (datu pertsonalak babestekoan) eta hori garatzen duen araudian ezarritakoa betez egingo da.

Kontratuari esker lortu dituen datu pertsonal automatizatuak Mankomunitateak agindutakoaren arabera tratatuko ditu enpresa esleipendunak, eta ezingo ditu aplikatu edo erabili kontratuan agertzen den helbururako baizik, ezta laga ere beste pertsona batzuei, nahiz eta gordetzeko izan.

Behin kontratu-prestazioa bete ondoren, tratatu edo prozesaturiko datu pertsonalak Mankomunitateari itzuli behar zaizkio, baita datu pertsonalen bat daukaten euskarri edo agiri guztiak ere.

Enpresa esleipendunak, kontratuaren akordioak bete gabe, beste helburu baterako bideratu, jakinarazi edo erabiltzen baditu datuak, horien tratamenduen erantzuletzat ere joko da, eta horrela berak erantzun beharko du egin diren lege-hausteei buruz.

12.- EUSKARAREN ERABILERA

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Baldintza hau betetzen ez badu, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean aurreikusitako zigorra jarriko zaio esleipendunari kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik. Zigorren zenbatekoa ez betetzearen larritasunaren araberakoa izango da, proportzionaltasun printzipioari jarraikiz.

13. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATU GAUZATU BITARTEAN HIRUGARRENGOEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

Obrak egin bitartean, edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu —publiko edo pribaturi— egiten zaizkion kalteen erantzule kontratista izango da. Bere ardurapeko langileen egite, ez-egite edo axolagabekeriaren ondorioz baldin bada, edota obra horien antolaketa, babes edo seinaleztatze okerraren ondorioz.

Horretarako, esleipendunak, kontratua izenpetu aurretik, polizaren kopia eta eraikuntzako arrisku orotako poliza kontratatzekeo primaren ordainagiria aurkeztu behar ditu; ondorengoak estali behar ditu poliza horrek:

- a) Eraikuntza- eta berme-aldian lanetan izan daitezkeen kalteak, esleipen-zenbatekoaren mugaraino, arrisku konbentzionalek (sute, tximista, leherketa, inpaktu, egintza basati eta asmo txarrekoek eta abarrek), naturako arriskuek, edota greba, matxinada, sabotaje, asaldu zibil eta terrorismoaren arriskuek, eta aseguratutako gisa Mankomunitatea sartuko da.
- b) Bere langileek, enplegatuek eta mendeko iraunkor edo behin-behinekoek, bere ekipoek eta tresneriak, obrak egin bitartean zertzen diren lanen ondorioz, beste batzuei eragindako kalteengatik izan dezakeen erantzukizun zibila (orokorra, patronala eta gurutzatua), SEIEHUN MILA EUROKO (600.000 €) zenbatekoa bermatuz.

14. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoagatik, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 107. artikuluan ezarritako zirkunstantziaren bat ematen denean, eta betiere horrekin aldatzen ez badira lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak.

Lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatu egin direla ulertuko da, besteak beste, kontratuaren aldaketek berdindu edo gainditu egiten dutenean, gehiagoz edo gutxiagoz, kontratua esleitzeko prezioaren %10; ondoz ondoko aldaketen kasuan, guztien baturak ezingo du muga hori gainditu.

15. OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak bukatzen direnetik gehienez ere hilabeteko epean obrak onartzeko egintza formal eta positiboa egingo da, eta dagokion akta ere egingo da. Isurketa gelaren II fasea egiteko obra bukatutakoan, zati honen harrera partziala egingo da, bermearen zati proportzionala bueltatuz.

Halaber, URTEBETEKO epea ezarriko da, onartze formala egiten denetik aurrera, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean eta Lege horren Erregelamendu Orokorrean ezarritako ondorioetarako berme gisa.

Dena den, berme-epea bukatu eta gero obra hondatu egiten bada eraikuntzako akats ezkutuengatik eta kontratistak ez duelako kontratua bete, berorrek erantzun beharko du kalteez obra onartu ondorengo hamabost urteetan. Epe hori igarota, inolako kalterik ez bada agertu, erabat desagertuko da kontratistaren erantzukizuna.

16. KONTRATISTARENTZAKO ZIGORRAK KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK

A) KONTRATUA BETETZEKO EPEAK

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, atzeratu egin bada kontratua betetzeko zuen epea betetzen, bai epe osoari dagokionez eta bai epe partzialei dagokienez, Administrazioak kontratua suntsitzea erabaki dezake, kontratistak bermea galduko duelarik, edota eguneko zigorra ezar dezake proportzio honetan: 0,20 kontratu-prezioaren 1.000 euro bakoitzeko.

Berandutzagatiko zigorrek kontratu-prezioaren %5eko multiplo bat lortzen duten bakoitzean, Kontratazio Organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko, edota zigor berriak ezarriz egiten jarraitzea erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN GAUZATZE PARTZIALA

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehazturiko prestazioen egite partziala bete ez badu, Administrazioak kontratua suntsitzea erabaki dezake, edota zigorra jar dezake: kontratuaren prezio osoaren %10ekoa.

17. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK

Obra-kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak 223 eta 237. artikuluetan ezarritakoak.

18. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Mankomunitateari dagozkio prerrogatiba hauek: kontratuak interpretatzea, hori betetzerakoan sortzen diren zalantzak erabakitzea, interes publikoagatik aldatzea, suntsiaraztea erabaki eta horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratueterako Legearen Testu Bateginean eta bere Erregelamendu Orokorrean ezarritako muga barruan eta betebeharrak eta eraginaren arabera.

III.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

19. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK

Kontratu hau esleitzea prozedura ireki bidez egingo da, eta presazko izapidetzea.

Kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren eskaintzak baloratzeko irizpideak eta ematen zaien ponderazioa honako hauek dira:

- Prezioa: %50.
- Lanak zabortegiko jarduerarekin koordinatzeko plana: %15.
- Geosintetikoak jartzeko proposaturiko enpresa: %15.
- Txosten Teknikoa: %10.
- Egin beharreko lanen programazio zehaztua: %10.

Aipaturiko irizpide horietatik, **balio-judizio baten mende daudenak** eta apreziazio automatikokoak baino lehen balioetsiko direnak, honako hauek dira:

1. **Lanak Zabortegiko jarduerarekin koordinatzeko plana: 15 puntu.** Proposaturiko metodoak, baliabideak eta plangintza zabortegiaren jarduerarekin koordinatzea balioetsiko da, jarduera hori inoiz ez dezaten distortsionatu egin beharreko lanek. Helburu horrekin, egiten diren analisiak eta proposamenak aztertuko dira: lanerako ordutegi egokienak, datak (asteburuak, zabortegian lanaldi murriztuko garaiak, etab.), egin beharreko lanen arabera, erabilera-guneak obrako lantegi eta zerbitzuetarako, makinak metatu eta gordetzeko guneak, makinaren igarobideak eta zabortegian ibiltzen diren kamioien adostea... Azken batean, egiten diren proposamenak —behar bezala justifikatuak, obrak eta Epeleko zabortegiaren jarduera propioaren arteko koordinazio ona ziurtatzera bideratuak— balioetsiko dira.
2. **Geosintetikoak jartzeko proposaturiko enpresa: 15 puntu.** Geosintetikoak jartzeko proposaturiko enpresak duen esperientzia eta giza baliabide eta baliabide materialak balioetsiko dira.

3. Txosten Teknikoa: 10 puntu.

- a. Obra hasi aurreko lanen analisia, obra-eremua seinaleztatzea eta balizatzea. Obraren antolamendua deskribatzea, bere kokapena kontuan izanda, eta hori osatzea sarbideen planoekin, makinaren eta garabien kokapenarekin, metatze-guneekin, behin-behineko obra-lantegiekin... Proiektuko Segurtasun Azterketaren arabera hartu beharreko segurtasun-neurriak, obra hasi aurretik nahiz obrak egin bitartean, eraikuntzaren kanpoko aldean nahiz barruan.
- b. Zaharberitze-lanak egiteko proiektuan proposaturiko eraikuntza-metodoaren eta bideragarritasun teknikoaren analisia. Obrak egin bitartean sor litezkeen zailtasun tekniko eta konstruktibo posibleen analisia, ezusteko horietarako konponbide-proposamenarekin, bai obraren beraren ikuspegitik eta bai Mankomunitatearen funtzionamenduaren afekzioan (inplikazioa gauzatze-epeetan eta eragin ekonomikoa ezustekoaren funtzioan). Analisi horrek koherentea izan beharko du aurkezturiko lan-programarekin.
- c. Obrara esleitutako langile teknikoak, dagozkien curriculumekin.
- d. Baldintza Agirian eskatutakoari gehitzeko, beste abantaila tekniko batzuk ere adierazi ahal izango dira, kontratatu beharreko obraren egitea hobetzeko nahiz proiektuan ezarritako materialen kalitaterako interesgarritzat jotzen direnak.

4. Egin beharreko lanen programazio zehaztua: 10 puntu.

Obra egiteko plangintza kontuan izan eta garatuko duen programa, proposaturiko egite-epea frogatuko duena, baldintza teknikoaren agirian dagozkion klausulan deskribatzen den bezala. Programa horrek garatu beharreko jarduera guztiak hartuko ditu kontuan eta gutxienez faseak adieraziko dituen barra-diagrama baten bidez irudikatuko da. Gauzatze-planaren epe partzialak ezarritako epe globalaren arabera izango dira, eta kontratua gauzatzeko proposaturiko epearekin bat datozenak. Halaber, programa horrek koherentea izan behar du aurreko irizpidea balioesteko eraikuntza-metodoari buruz aurkezturiko analisiarekin.

Balioetsi egingo da aipaturiko lan-programari faseak azalduko dituen txostena eranstea, kritikoak diren lantegi edo faseak edo/eta egoki gauzatzeko proposaturiko ordenaren arabera obraren garapena baldintzatuko dutenak adieraziz. Halaber, programaren metodologiaren aurkezpena balioetsiko da, obrara esleitutako langileen eta makinaren arabera etekinak eta eraikuntza-prozesuak analizatuz.

B) Apreciazio automatikoko irizpideak, ondoren adierazten direnak, honako formula hauen aplikazio bidez baloratuko dira:

1. Kontratuaren prezioa: 50 puntu.

Onarturiko proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, interpolazio lineal bidez egingo da, ondorengo bi puntu hauek mugaturiko zuzenaren arabera: P1 (gehienezko beherapena, gehienezko puntuazioa) eta P2 (zero beherapena, gutxienezko puntuazioa), eta puntu horiek mugaturiko zuzen horren segmentuaren barruan.

Aipaturiko puntuak honako hauek dira:

P1 - Eskaintzarik merkeena (gehienezko beherapena), horri puntuazio maximoa emango zaiolarik (Pmax puntu).

P2 - Licitazio-tasari dagokiona, eta horri puntuazio minimoa emango zaio ondorengo formularen arabera:

Licitazio-tasari dagokion gutxieneko puntuazioa:

$$P_{\min} = P_{\max} \times (1 - B_{\max} \times 4)$$

(B_{\max} = Beherapen maximoa)

Beherapena (B): lizitazio-tasaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea da, lizitazio-tasarekin zatituta.

P_{\min} -en kalkulua negatiboa izango balitz, $P_{\min} = 0$ hartuko da.

Lehen zehazturiko zuzena lortzeko, onarturiko oinarrizko eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Printzipioz, neurrigabeko edo ausarkeriazko beherapen gisa hartuko da aurkezturiko oinarrizko proposamen ororen beherapen-ehunekoen batez besteko aritmetikoa 10 unitatetan gutxienez gainditzeko duena, eta hori neurrigabeko edo ausarkeriazko beherapentzat jotzeko Kontratazio Organoaren erabakia beharko da, horretan ustez inplikaturiko eskaintzaile guztiei informazioa eskatuko zaie aurrez, eta dagokion Zerbitzuaren aholkularitza tekniko ere eskatuko da.

20. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio-prozedura honetan pertsona natural edo juridikoek parte har dezakete, jarduteko gaitasun osoa baldin badute, beren ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzen badituzte, eta Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak 60. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetan sartuta ez badaude. Kaudimena 21. klausulan ezarritako bitartekoen arabera egiaztatu eta balioetsiko da.

Halaber, beren izenean edo baimendutako beste norbaiten bidez aurkez dezakete, horretarako emandako ahalordearen bidez. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa bere kideren bat agertzen denean, horretarako ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Kasu batean nahiz bestean, ordezkariari ere badagokio kontratatzeke aipatu ditugun ezintasun-kausak.

21. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedienteak, eta horri erantsitako dokumentazio teknikoak, Debagoieneko Mankomunitatearen Idazkaritzan aztertu ahal izango da, bulego-orduetan, lanegun guztietan (larunbatetan izan ezik), lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Horiek Mankomunitatearen Sarrera Erregistroan aurkeztuko dira aipaturiko ordutegi berean, **hamairu (13) egun naturaleko epean** (azken eguna jai-eguna baldin bada, epea hurrengo lehen lanegunera luzatuko da), aipaturiko iragarkia agertzen den egunaren biharamunetik zenbatuta.

Halaber, lizitazio hau Mankomunitate honetako kontratatzailearen profilean iragarriko da, eta ondorengo web gunean atzitu ahal izango da: “www.debagoiena.com”

Geroago aurkezturiko proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta agerrarazi epea amaitu baino lehen ipini zirela Postetxean, salbu postaz bidali den egun berean telex, fax edo telegramaz Kontratazio Organoari jakinarazi bazaio eskaintza bidalitako dataren justifikazioa. Bi baldintza horiek ez badira betetzen, ez da proposamena onartuko proposamenak aurkezteko epea bukatu eta gero iristen bada. Dena den, jarritako epea igaro eta hurrengo hamar egun naturalak igaro ostean ez bada proposamena jaso, orduan ez da inola ere onartuko.

Eskaintzaileek hiru gutun-azal aurkeztuko dituzte itxita (A, B eta C) eta horietako bakoitzean hau agertuko da: EPELEKO ZABORTEGIAN I FASEKO ISURKETA-GELAXKAREN ITXIERA PARTZIALA ETA II FASEAREN SORRERAREN PROIEKTUARI DAGOZKION LANAK, PROZEDURA IREKI BIDEZ, KONTRATATZEN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA.

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena ere adieraziko da, proposamena izenpetzen duenaren izen-deiturak eta zein izaeraz egiten duen, hiru gutun-azalak ere izenpetuta egon behar dutelarik.

1) “A” gutun-azalak (KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA) honako dokumentu hauek izango ditu:

a) Enpresaburuaren eta, hala balegokio, bere ordezkariaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak.

Nortasuna egiaztatzeko honako hauek aurkeztu behar dira:

- Nortasun Agiri Nazionala, eskaintzailea bere izenean ari bada.
- Beste pertsona edo erakunde baten izenean agertzen direnek NAN aurkeztu behar dute, eta ahalordetze-eskritura. Dokumentazioa kalifikatzeko ekitaldian, ofizioz, ahalordea askietsiko da.
- Eskaintzailea pertsona juridiko bat denean, eraketa-eskritura edo, hala badagokio, aldaketa-eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio-fiskaleko kodea, inskripzioa eska dakiokenean aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera. Ezin bazaio eskatu, jarduteko gaitasunaren egiaztatzea eraketako eskritura edo agiriaren, estatutu edo sortzeko egintzaren bidez egingo da, hor agertzen badira bere jarduera erregulatzen duten arauak, hala balegokio, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuak.

Enpresaburuak espainiarrak ez direnean, baina bai Europako Erkidegoko kide diren estatuetakoak, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, dagokien Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, edota zinpeko adierazpena edo ziurtagiri bat aurkeztuz, Europar Erkidegoan aplikatu beharreko xedapenen arabera.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek beren estatuan dagoen Espainiaren Diplomazia Misio Iraunkorrek edo enpresaren helbideari dagokion lurralde-eremuko Kontsuletzeko Bulegoak egindako txosten bidez egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna.

1.b) Kontratatzeko debekuetan sartuta ez dagoela izendatuki aitortzea, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak 60. artikuluan zerrendatuak daudelarik debeku horiek, indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela espresuki egiaztatzen duen agiria barne, salbu azken bi zirkunstantzia horien egiaztagiriak aurkezten direnean.

1.c) Ondorengo enpresa-sailkapenaren egiaztatzea:

A taldea, 2 azpitaldea, e) kategoria

1.d) Hainbat enpresaburu enkantera aurkezten badira Enpresen Aldi Baterako Elkartea osatuta, hori osatzen duen enpresa bakoitzak egiaztatu behar du bere gaitasuna aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, esleipendun gertatuz gero formalki ALBE/UTE eratzeko konpromisoa hartu behar du. Halaber, ALBE/UTEn kide bakoitzak zer helburu-zati beteko lukeen adieraziko dute proposamenaren, guztien kaudimen-betekizunak zehaztu eta egiaztatzeko helburuarekin.

1.e) Kontratuaren inguruan zuzenean edo zeharka sor litekeen edozein gorabeheratarako, atzerriko enpresek aitortpen bat aurkeztu behar dute Espainian edozein mailatako auzitegi eta epaitegien eskumenean jartzen direla adieraziz, eta, hala balegokio, eskaintzaileak atzerrian izan lezakeen foru jurisdikzionalari uko egin diola adieraziz.

1.f) Posta elektronikoaren helbide bat, prozedura honen ondoriozko jakinarazpenak egiteko.

1.a) eta 1.c) ataletan adierazitako zirkunstantziak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Lizitatzailerik eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren agiriaren edo Estatuko Lizitatzailerik eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren agiriaren edo sailkapen-ziurtagiri komunitarioaren bidez egiaztatu ahal izango da, Sektore Publikoko Kontratu Legeak 84. artikuluan ezartzen duenaren arabera. Kasu honetan, ziurtagiri horrekin batera eskaintzailearen aitortpen arduratsua erantsi behar da adieraziz ziurtagiri horretan aipatzen diren zirkunstantziak ez dutela aldaketarik izan.

Agiri horiek guztiak jatorrizkoak izango dira edo Administrazioak edo notario batek behar bezala egiaztatutako kopiak. Dokumentazio hori fotokopia ximple bidez ere aurkez daiteke, baina kasu honetan lehenengo sailkatuak fotokopia horien benetakotasuna egiaztatu beharko du dagozkion jatorrizko agiriak aurkeztuz.

** "A" gutun-azalean eskaturiko agiriak Mankomunitate honek bideratutako beste kontratazio-espeditante baterako esleitze-dataren aurreko sei hilabeteetan aurkeztu dituzten eskaintzaileek ez dute berriro aurkeztu beharrik izango, ez bada horietan aldaketarik izan edo/eta ez badaude iraungita, zirkunstantzia hori aitortpen arduratsuaren bidez agerrarazi beharko dutelarik.

Esleipendun gertatzen ez diren eskaintzaileek, kontratua esleitu eta helegiteak jartzeko epeak inolako errekurtsorik gabe igaro ondoren, "A" gutun-azalean aurkezturiko dokumentazioa itzultzea eska dezakete. Halaber, esleipendunak kontratua bete eta behin betiko bermea itzuli ondoren ere eskatu ahal izango du.

A GUTUN AZALEKO dokumentazio hau hasieran aurkeztu ordez lizitatzailerik erantzukizuneko aitortpena aurkeztu dezake, I. Eranskinetako ereduaren arabera. Aitortpenaren adierazi beharko du proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean Administrazioarekin kontratu bat izenpetzeko legez ezartzen diren baldintzak betetzen dituela. Kasu horretan, lizitatzailerik, esleipen proposamena egokituz gero, kontratua eskuratu aurretik kontratazio organoaren aurrean egiaztatu beharko du eskatzen diren dokumentuak badituela eta baliodunak direla.

2) “B” gutun-azalak “BALIO-JUDIZIO BATEN MENDEKO BALORAZIO-IRIZPIDEAK” azpititulua izango du, eta barruan ondorengo agiriak:

- a) Lanak Zabortegiko jarduerarekin koordinatzeko plana.
- b) Geosintetikoak jartzeko proposaturiko enpresak dituen ezaugarriak, esperientzia eta giza baliabide eta baliabide materialak zehaztuta.
- c) Txosten Teknikoa.
- d) Egin beharreko lanen programazio zehaztua.

3) “C” gutun-azalak “PROPOSAMEN EKONOMIKOA” azpititulua izango du, eta barruan ondorengo agiriak:

- a) Alekako prezioen zerrenda.
- b) Proposamen ekonomikoa ondorengo ereduaren arabera:

..... jaunak/andreak
(.....(e)n bizi eta N.A.N.-zka. eta telefono-zka
..... ditudanak) jarduteko gaitasun juridiko oso-osoa dudalarik, neure izenean
(edota(r)en izenean eta ordez; honen egoitza soziala
da, telefono-zka. eta NAN/DNI edo IFK/CIF zka. —pertsona fisikoa edo
juridikoa izan—) “Epeleko zabortegian I faseko isurketa-gelaxkaren itxiera partziala
eta II fasearen sorreraren Proiektuari” dagozkion obrak kontratatzeko Debagoieneko
Mankomunitateak deitutako lehiaketaren berri izan dudalarik, zera aitortzen dut:

1^a) Horiek egitera konprometitzen naizela prezio honetan: (letra eta zenbakitan)euro, gehi BEZari dagokion %....., prezioan sartutzat jo behar direlarik zerga, gastu, tasa eta edozein zerga-eremutako arielak, baita kontratistaren industria-mozkina ere.

2^a) Ezagutzen ditudala Proiektua, bere edukiarekin, Administrazio Klausula Partikularren Agiria eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak, espresuki neure gain hartu eta onartzen ditudalarik oso-
osorik.

3^a) Nik ordezkatzeko dudana enpresak indarrean dagoen araudiak eskaturiko betebeharrak guztiak betetzen dituela bere irekitze, instalazio eta funtzionamendurako.

.....(e)n, -(e)koaren(e)an

Sinadura

22. KONTRATAZIO-MAHAIA

Hauek izango dira Kontratazio Mahaia osatuko dutenak:

Lehendakaria: - Mankomunitateko lehendakaria edo berak eskuordeturiko Gobernu Juntako kideren bat.

Kideak:

- Ingumen Batzordeko lehendakaria edo berak eskuordeturiko Batzordekideren bat.
- Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoa.
- Mankomunitateko kontu-hartzailea.
- Mankomunitateko idazkaria.

Idazkaria - Mankomunitateko idazkaria.

Gainera, gai bakoitzeko teknikariak ere joan daitezke, aholkulari-lanak egiteko Mahaiak beraiek egotea eskatzen badu.

23.- PROPOSAMENAK IREKITZEA

Kontratazio Mahaiak, aldez aurretik, "A" gutun-azalaren edukia aztertuko du eta garaiz eta forman aurkezturiko dokumentuak kalifikatuko ditu.

Horretarako, eskaintzaileen gaitasun eta kaudimenari buruzko azalpenak edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dira, eta Erregelamenduko 22. artikulua xedatzen duen bezala aurkeztu beharko dira, bost egun naturaleko epean. Azalpen edo argibide osagarrien eskatze hori Mahaiak ahoz adieraziko die interesatuei, eta aldi berean Mankomunitateko iragarki-taulan eta kontratatzailearen profilean ere iragarriko da. Era berean adieraziko du Mahaiak aurkezturiko dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsik baldin badago, kasu honetan hiru laneguneko epean eskaintzaileek zuzen ditzaten aurkituriko akats horiek.

Kontratazio Mahaiak, aurkezturiko dokumentazioa kalifikatu eta, hala balegokio, aurkituriko akatsak edo omisioak zuzendu ondoren, Baldintza Agiri honetan ezarritako aukeratze-irizpideetara egokitzen diren enpresak zein diren erabakitzeari ekingo dio, argi eta garbi adieraziz zein diren lizitazioan onartuak, zein baztertuak eta baztertze horretarako arrazoiak.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondorengo bosgarren lanegunean —eta egun hori larunbatean suertatzen bada, hurrengo astelehenean, salbu eskaintzaileen batek bere eskaintza postaz bidali duenean, kasu honetan Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrek 80. artikuluan ezartzen duen epea bukatu ondorengo lehen lanegunean egingo baita—goizeko hamarretan irekiko dira B. gutun-azalak, balio-judizio baten mendeko irizpideei buruzko dokumentazioa daukana. Kontratazio Mahaiak beharrezkoak iruditzen zaizkion txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu eta Baldintza Agiri honetan jasotzen diren balorazio-irizpideen bidez ebaluatuko ditu proposamenak.

Azkenik, Kontratazio Mahaiak, deitzen den lekuan, egunean eta orduan, C gutun-azalak (proposamen ekonomikoa eta apreziazio automatikoko beste irizpide batzuei buruzko dokumentazioa daukatenak) irekiko ditu ekitaldi publikoan. Ekitaldi honetan balio-judizio baten mende dauden irizpideei esleituriko balorazioaren berri emango da.

Ez dira onartuko honako proposamen hauek:

- Eskaintza kontuan hartzeko Administrazioari funtsezkoa iruditzen zaiona argi eta garbi ezagutzea eragozten duten kontraesanak, omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak.
- Azterturiko eta onarturiko dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- Gehienezko lizitazio-tasa gainditzen dutenak.
- Errematearen zenbatekoan akats nabaria dutenak.
- Baldintza Agiri honen eranskin gisa agertzen den proposamen-eredua funtsezko eran aldatzen dutenak.

24.- ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio-organoak, Kontratazio Mahaiaren proposamenari jarraituz, aurkezturiko proposamenak, proportziogabetzat edo anormaltzat jo gabeak, beheranzko ordenan sailkatuko ditu, Baldintza Agiri honetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera.

Kontratazio-organoak ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen eskaintzaileari eskatuko dio, hamar laneguneko epearen barruan, honako hauek aurkezteko: zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak, kontratua gauzatzeko erabiltzera konprometitu den baliabideak benetan badituela egiaztatzen duten agiriak, laneko arriskuen prebentzioari buruzko agiriak, eta behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duten agiriak.

Kontratazio-organoak dokumentazioa hartu ondorengo hiru lanegunen barruan esleituko du kontratua.

Errekerimendua ez bada egoki betetzen aipaturiko epean, ulertuko da pertsona edo enpresa eskaintzaileak erretiratu egin duela bere eskaintza, eta kasu horretan dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo pertsona edo enpresa eskaintzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordena edo hurrenkeran betiere.

25.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Mankomunitateko organo eskudunak behin betiko esleipena egin eta hori jakinarazi ondoren, kontratua administrazio-dokumentuan formalizatu behar du esleipendunak gehienez ere zortzi laneguneko epean, behin-betiko esleipenaren jakinarazpenaren biharamunetik zenbatuta, eta agiri hori aski titulu izango da edozein erregistro publikotara iristeko. Hala ere, kontratistak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publiko bihurtzea, dagozkion gastuak bere bizkar izango direlarik.

Kontratistari egozteko moduko arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatzen aipaturiko epearen barruan, Mankomunitateak ezeztatzea erabaki dezake, baita behin betiko bermea bahitu edo konfiskatzea ere.

Kontratua formalizatzea ezinbesteko betebeharra izango da edozein ordainketa tramitatzeko.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

26. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Baldintza Agiri honen arabera egiten den kontratuak administrazio-izaera izango du eta Baldintza Agiri honek eta berarekin doan gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Bertan ezarri gabeko guztian ondorengoak hartuko dira kontuan: Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategina, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartutakoa, baita Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onartutakoa, eta, hala balegokio, Herri Administrazioen kontratazioari aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Kontraesanik balego Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen eta espedienteari atxikitako beste dokumentazio teknikoaren artean, Agiri honetan xedatutakoa nagusituko da.

27. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik eratorritako auzigaiak administrazioarekiko jurisdikzioaren mende jarriko dira, baina, hala ere, beren auzigaiak arbitrajera aurkeztea erabaki dezakete alderdiek, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Arrasaten, 2014ko abenduaren 18an.

PROIEKTUAREN KONTSULTA.-

Dokumentu teknikoa, "EPELEKO ZABORTEGIAN I FASEKO ISURKETA-GELAXKAREN ITXIERA PARTZIALA ETA II FASEAREN SORRERAREN PROIEKTUA" interesatuen eskura izango da hemen:

- **KOPYPREST: Erguin kalea, 1 behea, ARRASATE. Tfnoa.: 943 77 07 36.**
arrasate@kopyprest.com

EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitate honetako Gobernu Juntak 2014ko abenduaren 18an egindako bilkuran onartu zuela agerrarazteko.

Arrasaten, 2014ko abenduaren 19an.
IDAZKARIA

Izpta.: Belen Txintxurreta

I. ERANSKINA

..... jaunak/andreak, helbidea
..... eta NAN zk., erabateko gaitasun juridikoa
eta jardutekoa duelarik, bere izenean (edo ordezkatuz, helbidea
..... eta IFK), Debagoieneko Mankomunitateak **“EPELEKO
ZABORTEGIAN I FASEKO ISURKETA-GELAXKAREN ITXIERA PARTZIALA ETA II FASEAREN
SORRERAREN PROIEKTUA”** gauzatzeko lanak kontratatzeko prozeduraren jakitun.

ADIERAZTEN DUT

Enpresa lizitatuak Administrazioarekin kontratatzeko lege ezarritako baldintzak betetzen dituela eta, esleitzeko proposamena bere alde ateraz gero, konpromisoa hartzen du kontratazio organoaren aurrean egiazatzeko, kontratua esleitu baino lehen, 21. baldintzan A. gutun azalean exijitzen diren agiriak dituela eta baliodunak direla, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 146.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

..... (e)n, 20..(e)koaren ...a.

Sinadura